Gaia: Idatzizko kolaborazio bat eskatzea *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

Gaia

Eranskina: Lanaren inguruko xehetasun gehiago

Eranskina

Zabala jauna:

Hasierako agurra

Amaia Arrien naiz, IVAPeko Administrazio Hizkera Ataleko teknikaria. Mezu honen bidez, idatzizko kolaborazio bat eskatu nahi nizuke *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako.

Aurkezpena

Hurrengo zenbakian, elikagai funtzionalei buruzko artikulu bat argitaratu nahi genuke. EHUren webgunean ikusi dugu *Elikadura eta Osasuna Unibertsitate Masterra* eskaintzen duzuela; hori dela eta, nahi genuke zuen taldeko kideren batek horren inguruan idaztea.

Lana egitea erabakitzen baduzue, erantsitako dokumentuan aurkituko dituzu egin beharreko lanaren inguruko xehetasun gehiago. Edozein zalantza izatekotan, jar zaitez nirekin kontaktuan adierazitako telefono edo helbide elektronikoak erabilita.

Mezuaren muina

Zure erantzunaren zain geratzen naiz.

Bukaerako agurra

Ondo izan.

Amaia Arrien Zuzaeta
Administazio Hizkera Atala
IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA
945 000 000
a-arrienzuza@ivap.eus
© 2011 Eusko Jaurlaritza

Sinadura